

"EUSKERALAGUNAK" KULTURA EL- KARGOA EIBARREN OFIZIALKI ERATUA

Aspaldiko ametsa zanak, orain dala aste batzuk hartu dau gorputz, Joan daneko urte mordoan jardun izan dau hemen euskaltzale talde batek gure kulturaren aldeko lanetan, Rikardo Arregi gure adiskide ahaztu ezinak esaten eban "euskalgintza" isilean, Baina talde honen ahalegina ezertan maiminduko bazan, ekintza indibidualen bateratze bat eta herriaren laguntasuna behar zituan. Horretarako, legez jarritako erakunde* bat behar zala pentsatu zan, Eibartar guztion laguntasunaz kontatu ahal izango eban erakundea, nahiz kolore bateko nahiz besteko, herri baten kultura talde politiko baten monopolioa ezin izan daiteke ta. Behar ziren pausoak eman eta gero, orain zorionez heldu da baimena. Esan beharra dago, asmo honen eragileek Udalararen* erraztasun guztiak izan dituela.

"Euskeralagunak" elkargoak*, gure kulturari, eta batez ere euskerari, indar berri bat eman nahi deusoen guztiak batu nahi ditu. Ez dator elkarte hau, lehendik dagozenei konpetentzia egitera, hareek betetzen ez dituen hutsuneak betetzera baino. haren lana osotzera. Herriko beste antolamenduekin —A.P.E., Club Deportivo, S.C.R. Arrate...— harremanetan eta batera nahi dau joan. Bai eta Euskal Herriko kultura instituzio nagusiekin batera ere, nahiz eta oraingoz Eibarren bakarrik lan egiteko izan. Popularra nahi dau izan, Herriaren zerbitzurako. Ordainez, eta bere asmoak lortuko baditu, herriko instituzioen, kultura elkarteen eta herriaren beraren laguntza eskatzen dau.

Zereginik printzipalena, ikastolen premia larri el erantzutea, batez ere diru aldetik. 252 ume dabilta ikastoletan; maisu bat, lau maistra, eta lau andereño laguntzailleren ardurapean. Ikastolako arduradunen betebeharra, zoritxarrez dagoen deficit ikaragarria nolabait tapatzea da, beste egiteko garrantzitsuago batzutara lotu beharrean.

Bestaldetik, osteango* eskola eta ikastetxeetan ere nahiko lizateke euskera irakatsia izan daiten. Gauzez ematen diren euskera klaseak, "alfabetatzea"... Hainbat gauza dagoz egiteko!

Elkarte hau martxan jarriko bada, herriaren laguntasuna

beharrezko dau. Bazkideak behar ditu, Hona hemen jarri dogun helburua*: mila ta bostehun bazkide. Kuota txikiena, 25 pezeta hileko jarri da.

Igazko udan, "Eibar Kultura-Inmobiliaria, S. A." izeneko elkarte bat sortu zan, Eibarren kultura-desarrollorako premiazko diren inbertsioak egiteko dana. "Euskeralagunak" eta "Kultura-Inmobiliaria" k osotu nahi dabe euskal kulturaren berbizte honen oinarria.

Eibarren euskera bizkortzea, gu danon eskuetan dago. Euskera, kultura hizkuntza bihurtzea gure eskuetan dago. Gure dirua ere bai, baina batez ere gure eguneroko lana eta ardura behar da. Gerta gaitezen laguntzera, bila daiguzan lehenengo mila eta bostehun bazkideok. Ahalegin honek, egon seguru, bere frutua emango dau eta.

Hona hemen zeintzuk izan diren baimen-eskabidea izenpetu dabenak, hasierako zuzendaritza-batzordea eurek osotzen dabelarik:

Lehendakari: Jose Garmendia Otegi.

Lehendakari ordezko: Martiniano Larrañaga Zubiate.

Idazkari: Andoni Idoyaga Ibarra.

Diruzain: Augusto Artamendi Okaranza.

Bokalak: Jose Maria Etxeberria Iraolagoitia (alkatea),

Jose Luis Ugarteburu Arrieta, Enrique Franco Albizuri, Jose Antonio Garate Muñoz, Ramon Sarasua Gisasola, Serafin Basauri Arteaga, Jose Maria Kruzeta Alberdi, José Moina Flórez, Juan Egia Agirre, Inazio Balenziaga Ugalde, Tomas Urizar Irusta.

Danok ahalegintzen bagara, kultura loratze eder baten lekuko* izango gara. ANAITASUNA honetatik egiten dan dei honi esan deiogun BAI.

S. BASAURI